

Nafarkaria

• ostirala • 2001eko abuztuaren 17a

Egunkaria

Kimatzeak eraman nahi duen hostoa



Nafarroako Gobernuak hilabeteak daramatza euskararen aurkako hizkuntza politika egiten. Aski ongi ikasi dute motozerra erabiltzen eta euskararen enborretik sortu diren adarrak kimatzen ibili dira kupidagabe: errotulazioa, administrazioa, unibertsitatea, D eredia, UEU... Oraingoan, guri tokatu zaigu. Nafarroako Gobernuak ez du Nafarkaria kimatu, baina ongarrria ukatu egin dio, eta hori motozerra bezain eraginkorra da. Eta, gaur, Nafarkariak 500garren hostoa atera du. Zorionak guri, zorionak zuei, zorionak beti.

Kultur etxe zaharberritua

XVI. mendeko San Kristobal jauregia dotore gelditu da zaharberritze lanen ondorioz


Frai Diego kultur etxeak ateak zabalduko ditu gaur iluntzean, bertan egin diren zaharberritze lanak amaitzeaz daudela. Inaugurazio eguna oraindik zehaztu gabe badago ere, bertan musika emanaldiak izanen dira ostiralero abuztuan.

IAZKO URTARRILEAN ITXI ZUTEN kultur etxea, bertan egin beharreko zaharberritze lanak zirela eta. Aretoak handitu, igogailua ipini, elbarri-tuentzako sarbideak atondu, aurrealdea garbitu... Hori guztia eginda, gaur iluntzean zabalduko dute berriro XVI. mendeko jauregia, urtebeteren buruan.

Plazatik Salarat musika taldeak kontzertua eskainiko du gaur Frai Diego kultur etxean, San Kristobal jauregian egin zaharberritze lanen ondoren izanen den aurreneko ekitaldian. Gaur iluntzeko 20:30ean abiatuko da musika emanaldia, eta, gaurko-az landara, hurrengo bi ostiraletan ere musikaz gozatzeko aukera izanen da Lizarran. Gaur zortzi, Emsemble CDJJJR taldea ariko da, eta abuztuaren 31n, berriz, Concerto Galante musika taldea entzun ahal izanen da La Rua kaleko 6.ean.

Frai Diegoren jaiolokua

Lizarrako Almudi Kultur Elkar-
tea arduratzen da Lizarrako Udalaren kultur programazioaz, eta antzinako ospitalean urteetan egon eta gero, 1985. urteaz geroztik San Kristobal jauregian paratu zuen egoitza. XVI. mendeko harrizko eta adreiluzko jauregi ederra da San Kristobalekoa. 1561. urtean eraiki zuten, Pizkunde garaian, eta plateresko tankera-



San Kristobal jauregiko atzealdea, ibai ondoan. Eta zaharberritzearen bi xehetasun. ● KRISTINA BERASAIN

koa da. Orotara hiru gorputz ditu palazioak, eta, barneko patioaz gain, eraikineko txokoe-tan ederki zizelkatutako zutabeak, kapitelak eta ateburuak ikus daitezke. Aurrealdean ere Kris-

tobaldarren armarria dago; izan ere, bertan jaio zen, 1524. Urtean, Lizarrako Frai Diego idazle ospetsua, garai hartako hiriaren gunea zen La Rua kalean, hain zuzen ere. Hamaika seme-ala-

bako familia baten bigarren semea izan zen. Aita Diego San Kristobal Egia zuen; ama, berriz, Maria Cruzat Jasso. Lehenengoa gaztelarra eta bigarrena nafarra, biak-izen handiko familiakoak ziren.

Frai Diegok teologia ikasketak egin zituen Salamancan, eta Frai Luis de Leon eta Francisco de Vitoria ezagutu zituen. 1565. eta 1569. urte bitartean, Espainiako Felipe II.a erregearen

gortean aritu zen lanean predikari, kontsulari eta teologo gisa. Hala ere, istiluak izan zituen: Frai Diegoren ustetan, erregearen gortek dirutza handia erabili zuen El Escorial jauregia eraikitzeko. Halaber, Jesusko Santa Teresarekin harremana izan zuela aipatzen da.

Beraz, antzinako historia gordetzen duen jauregi kutuna ikusi eta erabiltzen ahal izanen da berriro gaurtik aitzina.

→ Kristina Berasain

bi hormetara

JOSETXO AZKONA



Zure hipokanpoak esan zizun ahots lodi hura (ordurako aski ezaguna) goitik beheraino zetorrela, zehatzago, lehenengo solairutik zu zeunden tokiraino, hau da, baserriko ukuluraino, egoitza bi horiexen artean kokaturiko eskaileretan barrena.

-Joxe, zaiza...?

Aitona zen, duda gabe; eta zerbait eskaka zebilkizun, beste behin. Zu, orduan, sarda behi-gorotzez apailatu berrian zenuen piloan tinkatu eta ingurumariari arakutzen hasi zintzaizkion, zaiza horren bila, noski.

Txoko batean, hormaren kontra bermaturik, bizpahiru eskuare zeuden; pixka bat harantzago, laiak eta aitzurrak; eta, honantzago, alboko askaren parean, luzera bateko zein besteko makila bilduma bat.

Gauza horiek guztiak bazuten izen jakin bat; kostata,

Hitz-malatsa

baina aski ongi ezagutzen zenituenak. Nola aurkitu, ordea, zaiza delako hori, zer zen ere jakin gabe?

Tira, pare bat malats bazeuden zaku zahar baten gainean. Baina zertarako nahiko ote zuen aitona malats bat? Zertarako, bai, gazta ekoizteari utzia bazioten etxeokoe aspaldi? Zergatik eskatuko zizun aitona erabileraz kanpoko tresna hori, aulkitik altxatzeko ere gauza ez zelarik?

Ukulluan, zu izan ezik, ez zegoen beste inor. Beno, egia esatera, behi saila ere bertan zegoen; eta behiei, noski, ezin laguntzarik eskatu.

Eskaileraren azpian ikusi zenituen azkenik. «Bai horixe!», esan zenuen zeure baitarako, «guraizeak, guraizeak nahi

ditu aitona!». Zeren, gauza bat zen hiztegiko hitza eta, beste bat, hagitz bestelakoa, usadioan esaten ohi zutena. Eta zuk bazenuen nahikoa eskarmenturik afera horren gainean. Beraz, zaizak, edo ziren zirelakoak, zimitzaren hondotik hartu, eta eskaileretan gora jo zenuen pozez.

→ Tori, Sebastian, hemen daukazku, zure zaizak».

Egun hartako afarian, «Joxe, zaiza-zaiza?», behin eta behin esan bitartean, barre-algaraka jardun zuten etxeokoe zure kontura; eta zu, zer esanik ez, erremindurik.

Une batean, aurreko platera bete baratxuri zopa ezin irentsirik, kopetilun erretiratu zinen zure gelara. Hura zen, hain zuzen, mintzaira pozoitsu haren ikasbidearen zure zazpigarren urtea; eta, erositako azken hiztegia eskuan hartuta, txu egin zenion azalari, biraoka eta arrabiaz beterik.



urdairen
mintzoa

Xabier Larraburu

Mendialdea ●

Basoa, Nafarroaren bihotza

Natura, historia eta ohiturak uztartzea da 'Nafarroako mendialdea, Pirinio berdea' programaren xedea



Zaldi baten gainean, bizikletaz nahiz 4x4 auto baten barruan ezagutu daitezke, abuztuaren 31a bitartean, Nafarroako basoek osatzen dituzten paraje miresgarriak, hainbat erakundek antolaturiko egitarauen eskutik.

Besteak beste, Orgi hariztia eta Eltsoko erlezaintza museora eramán nahi dituzten bisitariak Nafarroako mendialdea, Pirinio berdea programak.
● CRISTINA BERIAIN

MAITE DITUT, MAITE, GURE bazterrak...», dio Mikel Laboaren kanta ospetsuak, eta, hain zuzen ere, besteak beste, Aralarko bazterrak ezagutzera ematea du helburu Cederna-Garalur agentziak eta Plazaola Patzuergo turistikoak bertako landetxe eta artisauekin batera prestatutako egitarau turistikoak.

Basaburua-Ultzama bailarak, Egar eta Metrokilloko kobak, Orgiko hariztia eta Ezkurdiko erlezaintza etxe-museoa bisita daitezke, abuztuaren 31a arte, asteen zehar antolatutako txangoetan.

Astelehenetan, Basaburua

eta Ultzamatik barrena bi orduko ibilbideaz bizikletaz gozatu nahi izanez gero, lagun bakoitzak 2.000 pezeta ordaindu behar izaten ditu (3.500 pezeta bizikleta barne). Udabe izeneko bentan izan ohi da hitzordua, goizeko 11:00etan.

Asteartetan, berriz, espeleologiari ekinez, Egar eta Metrokilloko kobazuloak bisita daitezke 2.500 eta 3.000 pezetaren truke, hurrenez hurren. Astizko aterpetik abiatzen dira bisitariak, goizeko 10:00etan.



Bestalde, asteburua ondo hasteko, ostiraletan Orgiko hariztia eta Ultzamako bailarako Eltsoko herrian dagoen Ezkurdiko erlezaintza etxe-museoa ezagutu daitezke, 1.000 pezetan. Bisitak hiru ordu irauten du, eta Orgiko etxolan izaten da hitzordua, goizeko 11:00etan.

Turismo kulturala

Nafarroako mendialdea izeneko egitaraua 1998an sortu zen, eta haren diseinatzailea den Javier Hernandezek azaldutakoaren arabera, aurtengo eskaintza berezia da, eskulangile eta landetxeekin batera antolatu baita. Helburua, Nafarroa ikuspuntu osatuago batetik ezagutzera ematea.

«Ekintza hauek familia giroko eta kulturari lotutako turismoa nahi dutenei zuzentzen zaizkie. Naturaz gozatzeaz gain, Nafarroako historia eta ohiturak ezagutu nahi duenak aukera paregabea du, egitarau honen eskutik», azaldu du Hernandezek.

Orgiko hariztitik 1,5 kilometrorra erlezaintzan diharduen Ezkurdiko etxe-museoa dago. Bertako jabea den Isabel Telleria esku bete lan dabil, ezta ekoizten eta bisitarien ardura-tzen. 1993. urtetik dabil Nafarroan ezta egiten, eta, lantokia handitu den heinean, hainbat

motako ezta ekoiztea lortu du, Uxuen, Vianan, Baztanen, Ultzaman eta Estellerian dituen erlategietan.

Isabel Telleriak azaldu duenez «jendea beti etorri izan da gure lantokira, ezta erletxeetatik nola ateratzen den eta nola ekoizten den ikustera. Neguan, eskoletako haurrak eta jendez betetako autobusak etortzen dira. Udan, bisitariak ugaltu egin dira, egitarauri esker. Egia esanda, lanaz gainezka nabil».

Nafarroako Mendialdea egitarauaren eta parte-hartzaileen informazioa www.pirineonavarro.org webgunean dago.

→ Estibalitz Ortega

Iruñea ● Donibaneko Azueloko plaza berrituko dute

IRAGAN ASTEARTEAN, IRUÑEKO UDALAK ETA Azuelo monasterioko plazako garajeen komunitateak hitzarmena sinatu zuten, Donibaneko plaza zaharkitu eta hondatua berritzeko. Plaza pribatua da, baina erabilera publikokoa, eta duela hogeitau urte eraiki zuten. Plazak anfiteatro itxura du. Izan ere, arkitektoen asmoa zen Azueloko plaza bizilagunen bilgunea izatea, baita aterik gabeko antzokia ere. Baina, hogeitau urtetan, ez da inoiz erabili horretarako. Bizilagun gehie-

nek uste dute plaza arrunt itsusia dela, eta, gainera, material merkeekin eginikoa izanik, plaza hondatuz joan da utzikeriagatik, eta horrek azpiko garajeari eragin dio.

Garajeen jabeen aspaldiko asmoa zen garajeak berritzea, baina hori eginez gero, plaza ere zaharberritu egin behar zuten, eta, horretarako, Udalaren laguntza behar zuten. Hainbat urtetako desadostasunen ondotik etorri da hitzarmena Udalaren eta garaje jabeen artean. Oinarrizko proiektu-

tuaren gastua garaje jabeen eta Udalaren artean banatuko da, eta Udalak, gehienez ere, bortz milioi pezetako laguntza eman du. Yolanda Barcina Iruñeko alkateak iragarri duenez, plaza «goitik behera» aldatuko dute. «Orain kontua da plaza atsegina izatea bizilagunenak eta mantentzen erraza Udalarendako», adierazi zuen Barcinak.

→ Daniel Urrutia

Bi augure

Takoneran Zaldi Eroarekin egiten dut topo. Esan dit aurtun sorbeltz gutxi etorri direla Iruñera. Ezohizkoa dela. Esan dit atzo iparraldeko haizea balliatuz txinaurritegi askok andereteak atera zituztela txortan egitera eta horrelakoetan milaka sorbeltz ikus genitzakeela txinaurri hegalar horiek jaten, baina atzo apenas ari zirela hamar bat sorbeltz txinaurrien ezkontzak deuseztatzen. Eta horren haritik esan dit beldur dela ez ote den izorrazten ari zer edo zer Afrika aldean (eta hemen azpimarratu du geografikoki zehaztea ezinezkoa zaiola: Marokoko iparraldetik Hegoafrikako hegoalderaino buruz ari dela, sorbeltzen neguko tokiak zabalak izango direla oso), eta airean utzi ditu Afrikako balizko ingurumen aldaketak, Iruñetik Afrikako aldaketak igartzea posible izango balitz bezala. Esan diot antzinako erromatarren antzera ari dela; hau da: Lurrean gertatuko direnak peskizan, zeruan dabilzan hegaztiak. Eta ez nauela batera harrizten augureen birjaiotze hau, jakin bait zientzialariek ere animalien barrukiak behatzen dituztela uren eta lurren aldaketak igartzeko. Muskuilu bat, esate baterako, hartzen dutela eta haren gibela (edo dena delakoa) irekitzen dutela kostaldeen geroaz informazioa izateko, jakiteko nola gauden eta nora abiatzen garen. Esan diot aitzine-ratze prozesu honetan animalien sakrifizioak berrindartu direla. Holokaustoak eta Hekatonbeak eguneroko ogia dugula. Aheriaren eta behien holokaustoak ikustea besterik ez dagoela. Jainko-jainkosei sakrifizioen bidez gure ondareen izurriteak amaitzea eskatzen diegula, antzinako erara. Erroman sakrifizio handizat zutela Suovetaurilia bat egitea, hau da: txerri baten, ardi baten eta zezen soil baten hiltzea. Esan diot Suovetauriliako animalia bakoitzaren kopurua lau milioi aldiz biderkatu dugula gure sakrifizioak indartzeko asmoz, horrek ongi asko irudikatzen duela gure beldurraren tamaina. Esan dit, nire txapari kasu handirik egin gabe, Iruñeko udek beti izan dituztela sorbeltzen txilioak eta beldur dela ez ote diren horrelako udak egunen batean amaituko. Esan diot posible dela. Akaso egunen batean hegaztien hegaldietan ez baizik zeru hutsak ikusirik igarriko dugula oraina eta etorkizuna, orduan jakingo dugula, augure aparten antzera, seinale horiek izango dituzten ondorio zehatzak. Eta gai izango garela esateko: akabo. ●



BEDERATZI URTEZ DIRU LAGUNTZA eman eta gero, Nafarroako Gobernuak bi murreratu ditu *Nafarkaria*-ren aurtengo laguntza jaso ez dezan. Lehenik eta behin, Gobernuak eskatu du laguntza jasoko duen pertsona juridikoak egoitza soziala Nafarroan izatea. *Nafarkaria* EUSKALDUNON EGUNKARIAREN gehigarria da, eta hark, jakina denez, Andoainen (Gipuzkoa) du egoitza. Murreratu da eta zaharkazina. Bai ordea, bigarrena.

Nafarroako hedabideetan euskara sustatzeko diru laguntzen deialdiak bi atal nagusi ditu: bata, euskarazko hedabideena, eta bestea, gaztelaniazkoena. Gaztelaniazkoetan lau hedabide moten arabera banatuko da dirua: eguneroko prentsa eta gehigarriak, aldizkako argitalpenak (astekariak, hamabostekariak...), irriatik, eta telebistak. Bada, euskarazkoen atalean, hiru hedabide mota besterik ez daude. Euskarazkoen artean ez da «eguneroko prentsa eta gehigarriak» atalik. Munduan euskarazko egunkari bakarra dagoenez, irakurleak esku artean duena hain zuzen ere, erabaki horrek zuzenean jotzen du EUSKALDUNON EGUNKARIAREN kontra.

«Euskara garatzeko interesa eta eragina»

Hortaz, Nafarroako Gobernuak urtero banatzen duen diru laguntzetatik at gelditu da aurtengo *Nafarkaria*. Baina, sartu izan balitz ere, orain arte jaso duen diru kopurua hagitz txikituko litzateke. Izan ere, laguntzak emateko balorazio sistemen portzentaiak goitik behera aldatu ditu Gobernuak. Zahaztasunetan sartzeak luze joko luke,

NAFARROAKO GOBERNUAREN DIRU LAGUNTZA URTEZ URTE

URTEA	DIRU LAGUNTZA
1991	
1992	7.000.000
1993	7.000.000
1994	Daturik ez
1995	6.400.000
1996	6.700.000
1997	6.700.000
1998	6.150.000
1999	7.110.000
2000	7.286.400

500 ale eta geronau

NAFARKARIA ia duela hamar urte sortu zen, Nafarroako Gobernuaren diru laguntzen karietara

Iragan asteko ostiralean (noiz, bestela), hedabideetan euskara sustatzeko diru laguntzen deialdiak argitaratu zuten Nafarroako Aldizkari Ofizialean. Espero genuen, baina horrek ez dio mingostasunik kendu. Nafarroako Gobernuak Hizkuntza Politikako zuzendari berriek, azken hilabeteetako «hizkuntza politikaren» ildoari jarraiki, diru laguntzen esparrutik kanpora utzi dute *Nafarkaria*. Eta, zorionak! *Nafarkaria* 500. zenbakiarekin ateratzen baita gaur.



1991. urteko abendutik ateratako *Nafarkaria*-k biltzen dituzten liburuxkek eta gehigarriak jasotako Argia saria. ● JOXE LACALLE

ena erran dezagun aldaketak, oro euskarazko hedabide defizitariotarako direla. Gainera, irizpide berria erantsi da, erabat subjektiboa: «Nafarroan euskara garatzeko eskaerak dituen interes eta eragina». Auskalo zein motako proiektuek izan dezaketean Gobernuaren euskara garatzeko. Eta, halaber, auskalo zergatik, bederatziruharen bueltan, halako aldaketak egin duen Nafarroako Gobernuak diru laguntzeko deialdian. Batzarrek hain galdera egin dizkio Parlamentuan. Antzunen zain egon beharko litzateke.

Ale hop!... 500 ale

Nafarkaria-k bere 500. alea ateratu du gaur. Nafarroako Gobernuak euskarazko prentsari ematen hasi zen diru laguntzen karietara sortu zen, 1991ko abenduaren 6an, ostiralarekin. EUSKALDUNON EGUNKARIAREN lehen alea kaleratu eta hurrengo urtea zen. Nafarroako informazio hurbila eta zuzena ematea izan zen produktu berriaren helburua, eta halaxe eginen saiatu dira orain arte gehigarriaren ardura izan duen lau kazetariak: Alberto Barandiaran, Edurne Elizondo, Irene Arrizurieta eta Asier Azpilikueta.

Nafarkaria aurreneko egunetik sortu zen, gainera, Nafarroako prentsa zegoen hutsunea. 1966ko otsailaren 70ko hamarkada arte Nafarroako informazioa kaleraturiko Principe de Viana euskarazko aldizkaria gogoan duen oraindik zenbaitek, eta baita *Nafarroa Gaur* egunkariak 80ko hamarkadatik argitaratutako *Nafarroa Gaur* astekaria ere. Hutsune handia nabaritzen da, eta, horregatik, astekari berriak kaleratzea bikaina izan zuen hasieratik. Lanaren emaitzak gairatu du, zenbait kasutan, eguneroko prentsaren arabera, eta, besteetan, lortu du erantzuna, baita gure mugetatik harago ere. Horrela, jaiotako hurrengo asteko prentsa idatziari emaniko Argia saria jaso zuen gehigarriak, eta 2004an Patxi Huarte irudigileak Ri-



Nafarkariaren kolaboratzaileak

Urteekin batera, produktua sendotuz eta izaera hartuz zihoan heinean, Nafarkariak Nafarroako euskal sortzaileen lumak bereganatu zituen, eta izen ezagunak bildu ziren bere ostiraletako zortzi orrietan. Estilo eta izaera guztietako iritziei zabalik egon zen beti argitalpena. Zerrenda lekuko (ahaztu ditugunei, barkamenak; eta noizbait idatzi dutenei, esker aunitz):

- Felipe Rius
- Bingen Amadoz
- Josetxo Azkona
- Jon Alonso
- Aingeru Epaltza
- Pello Lizarralde
- Xanti Begiristain
- Mikel Taberna
- Joxemiel Bidadorrek
- Piarres Xarriton
- Xamar
- Patziku Perurena
- Juanjo Olasagarre
- Juantxo Urdiroz
- Matias Mujika
- Gaizka Aranguren
- Mikel Belasko
- Pili Yoldi
- Estitxu Fernandez
- Mikel Reparaz
- Patxi Larrion
- Kike Diez
- de Ultzurrun
- Maite Urkia
- Juan Kruz Lakasta
- Fermin Erbiti
- Pello Goñi
- Pello Gonga
- Gontzal Agote
- Jojo Bidiart
- Patxi Huarte
- Asisko Urmeneta
- Aitor Arotzena
- Aritz Agirre
- Aitor Txarterina
- Martxelo Sotes

kardo Arregi Kazetaritza Saria jaso zuen, Noski Jator pertsonaiaren inguruan osaturiko komikiengatik. **Jose-txo Azkonak** hiru urte geroago *Nafarkaria* idatziarik «Marta» artikuluairekin erdietsi zuen sari bera, euskarazko prentsaren sari gorena, hain justu.

Euskarazko liburuen abiatze pista

Halaber, **Felipe Riusek** *Nafarkaria*-n argitaraturiko hainbat zutabetatik jaiotzen «Bi argazki eta hainbat polaroid» liburua (Pamiela, 1999), eta, Patziku Perurenak eginiko asteroko kolaborazioei esker, Tafallako Txalaparta argitaletxea liburu bat kaleratzear da. Berriki, **Joxemiel Bidadorrek** «Klasikoak bitxi, arrotz klasiko» bere kolaborazioak testuak baliatuz «Euskara Iruñeko kazetaritza (1910-1920)» testu antologia sortu du (Iruñeko Udala, 2001). Bestalde, gehigarriaren kaleraturiko artikuluen baten luzapen gisara, 1998an Iruñeko Udalak Alberto Barandiaranen «Iruñeko Udalen literatur lehiaketak (1882-1928)» liburua argitaratu zuen.

Emaitza joria izan dela ezin uka: *Nafarkaria*-k eman die gure euskal idazle askori plazaratzeko beta, eta balio izan du euskarazko prentsaren egoera apur bat normalizatzeko ere. Gainera, dudarik gabe erran daiteke Nafarroako euskal kulturaren nor den orok kolaborazioak egin dituela, noiz edo noiz, *Nafarkaria*-n. Askoren abiatze pista izan da gehigarria. Orain gehigarriak berak erabili beharko du pista hori.

Nafarkaria Nafarroako erakunde gorenaren babesik gabe gelditu da. Baina, irakurlearen babesa lagun, aitzina segituko du, Nafarroatik Nafarroara, nafarrek egina, nafarrek irakurria.

→ Asier Azpilikueta

Alberto Barandiaran
IDAZLE ETA KAZETARIA

Koadrila kualifikatua


Ez dakit *Nafarkaria*-n urteotan kolaboratu duten iritzi bera izango duten, baina guretzat, barruan ibili garenontzat, gehigarria Nafarroako euskal sortzaileen bilgunea izan da beti, halako topaleku irekia eta alai, sorpresa-kutxa.

Gogoan dut Aingeru Epaltzarekin izandako aurreneko bilera. Berak koordinatu zuen Nafarroa Gaur euskarazko gehigarriaren aroa bukatua zen, eta iritzi eske joan nintzaion, genituen asmoak azaltzera. «Zerbait behar diagu», esan zidan. Zerbait hori *Nafarkaria* izan da. Zinez uste dut.

Hori neurtzeko termometroa urteroko afaria izan du gu beti. Aurreneko urteetan, estuasun ekonomikoak zirela eta, ez genituen kolaborazioak ordaintzen, eta Zalduko-maldikoko afaria izaten zen gure ordainsari txikia. Orduko idazle, kazetari eta komikigile euskaldun ia guztiak egoten ziren afari haietan. EGUNKARIAKO zuzendarien bisita aprobetxatzen zuten euren proposamenak, galderak, iradokizun eta kritikiak helarazteko. Editore kontseilu nafarraren gisa jokatzeko zuten: gertu sentitzen zuten EGUNKARIA, haien egunkaria zen. Galderak, betikoak: «Noiz jarriko duzue salgai *Nafarkaria* Gipuzkoan eta Bizkaian?». «Noizko *Gipuzkaria* edo *Bizkaikaria*?». Zuzendariak harriturik itzultzen ziren, koadrila kualifikatuaren suharrak apur bat aztoratuta.

Uste dut ez dela asko aldatu. Azken urteotako afarietan desagertu dira aurpegi ezagun batzuk, baina azaldu dira beste berri asko. Ez dago aurreko urteetako euforia, «EGUNKARIAKO produkturik txukunena» egiten ari ginen sentsazioa, besteak beste, EGUNKARIAREKIN batera, EGUNKARIAREN ondoan, hazi direlako baita Euskalerrira Irratia, Ttipi-ttapa, Guaixe eta irrati zenbait ere, baina bada oraindik, koadrilaren sentsazioa. Badago euskarazko sormenaren gorputza hazten ari den sumoa, gero eta gehiago eta gero eta pluralagoak garen konbentzimendua. Eta horretan oso parte garrantzitsua izan duela *Nafarkaria*-k Patxi Huarteren eta Jose-txo Azkonaren Rikardo Arregi sariak, gehigarriaren beraren Argia saria, bertako orrien esperientzietatik ateratako hainbat liburu... Horren lekuko dira denak.

Hau guztia badakite, ongi jakin ere, Hizkuntza Politikako agintari berriek. Antza, min ematen die.



Gorabeherak

Hankartea gora eta behera. Ba al dakizu nola esaten den «braguetazo» euskaraz?: **Urdangarin.** Lasai. Ez naiz **Pedro Pejenaute** erregionalista saiatuari **Nafarkaria** behin betiko ixteko euskarria eskaintzen ari. Espainiako errege familiaren aurkako iraintzat hartzen ahal den txistea ez baita nik asmatuikoa. Ez baita azken egunotan euskal hedabide batean zorioneko txistea topatzen ahal den lehen aldia. **Karlos Argiñanoren** asmakizuna da. Edo, bederen, sukaldari zarauztarrak astelehenean ETBko saioan kontaturikoa.

Reala gora eta behera. Ama Birjinaren egunaren bezperan, lagunarteko afaria egin genuen Zarauzko **Alfredo Jaime** zenak bezala (badakit bizirik dirauela, baina argi dago politikoki harena gorputza baino gorpua dela), Zarautzen igarotzen dut abuztua— piperrik eta gatzik gabeko elkarte gastronomiko gipuzkoar horietako batean—zentzu metafisikoan ari naiz, jakina. Ezin uka daiteke kostaldezentristen elkarteotako sukaldeak gure peñetakoak baino askoz hobeki horniturik daudela—. Afalondoan, mahaiakideak **John Benjamin Toschaken** Realak UEFarako sailkatzeko dituen aukera ustez ugarrien inguruan solasean hasi ziren. Gerritik gorako anestesia epidurala eskatu nuen, baina ez zuten horrelakorik—gipuzkoarren elkarte gastronomi-

koetako horniduraren bikaintasuna ez da horraino heltzen—.

Gina gora eta behera. Hartara, gina—ginebrari hala esan behar zaio Axularren hizkera zaharrean, hedabide honetako zuzentzaileek aholkatu didatenez. Ez zait gustatzen, baina ohituko naiz, ohiko idazten ohitu nintzen bezala, orain atzera bueltan ohizko idazten ohitu beharko dudana bezala— edanez moldatu behar izan nuen. Kuba-librea bazterrean utzi dut. Batetik Gerardok—mus bikotekide ikurrina baino baskoagoak—bonba kalorikoa zela ohartarazi zidalako—eta haren poderioz ni bonba estetikoak bilakatzen ari naizelako—. Bestetik, **Aingeru Epaltzaren** «Rock and roll» irakurtzen ari naizelako—Jaimek ez bezala, Zarautzen libu-

ruak irakurtzeko gai naiz—: protagonistak gina edaten du, eta horrek xarma literarioa gehitu dio gina edateari.

Lakasta gora eta behera. Hirugarren basokada edari lakar urdaieratu nuelarik jabetu nintzen munduko gin guztia ez zela aski izanen solasaldi zuriurdina gaintzeko. Mintzagaia aldarazi behar nuen ezinbestean. Biderik zuhurrena solasgaia emeki-emeki desbideratzen joatea zen, solaskideak asalatu gabe. Alta, ez nengoen bide zuhurretan barna abiatzeko moduan. Bide zuzen eta birrintzailea aukeratu nuen: sona handiko zarauztarrez gaizki esaka hastera. Horrelakoek beti ematen diote gatza eta piperra afalondo bati. Sona handiko hiru zarauztar basterik ez dituzte ezagutzen: **Jose Maria Agirre 'Lizar-**

di' idazlea, **Inazioa Eizmendi 'Basarri'** bertsolaria eta **Karlos Argiñano.** Lizardiz **Rimbaudek** behin beraz galdetu zuela basterik ez dakit, eta Basarri, berriki hil dela. Hartara, sukaldariaren kontra ekin nuen. Zazpi seme-alaba ditu, eta, elkarriketa egiten dioten aldiro, euskaldunok haurrak munduratu behar ditugula dio, eta horretan oinarriturik Opus Deikoa dela esaten hasi nintzen. Bete-betean asmatu nuen. Mahaiakide bibotedunak—zergatik dira bibotedunak gipuzkoar ia guztiak?— berehala ekin zioten haien sukaldariaren defentsari. Eta asmatu zuten. Arestian aipatu txistea gogora ekarriz, argudiorik gabe utzi ninduten. Ferminek, egunotan Zarautzen ezagutu dudana ikerlari iruindarrak, ez zuen hitz bakar bat ere esan.



Iñaki Urdangarin, Espainiako errege etxeko kidea.



Lizardi, zarauztar ospetsua.



panpilonia zirkus

King Kong

Gorila handiarena izan zen zine areto batean ikusi nuen lehen filma. King Kong. Igande arratsalde batez. Kale Nagusiko Centro Mariano desagertuan. Orainxe konturatu naiz fosil zaharkitu basterik ez naizela. Kazetari izan nahi, baina arkeologotzat jotzen dut ene burua une honetan. Duela zenbait egun, hamak kaxa batean gordeta zeuzkan txikitako jostailuak ikusten, laztantzen aritu nintzen. Orogen artean, Cinexin-a maite nuen bereziki. Walt Disneyren pertsonaiak hantxe ezagutu nituen. Nahiz eta proiektagailu ziztrin hura berehalakoan izorratu eta itzali, zinezaletasuna piztu zitzaidan.

80 urteetako hamarkada hasi aurretik, Saide enpresak zuen monopolioa Iruñean. Sasoi hartan, ordea, zine areto independenteak sortzen hasi ziren, hiriko

hainbat bazterrean. Besteak beste, Ekhiñe Arrotxapean, Aitor Arrosadian, Mikael II. Zabalgunean, Donibane eta Txantrea aretoak izen bereko auzoetan, eta abar. Sare berri hori izan zen Golem zinemaren hazia, 1982 urtean Baiona etorbidean zabaldu zuten arte. Eraikin berean San Alberto tanatorioa ireki zuten. Eta, bien tartean, bitartekaritza lana egiteko beharrezkoa zen taberna bat. Izena ezin aproposagoa jarri zioten: El Alivio.

Horren ondoren, beste zenbait zine areto itxi egin zituzten: Arrosadian Guel-



Rex zinematoki zaharra, Zabalguenean. ● MIKEL SAIZ

benzu, Zabalgunean Rex eta Avenida, eta, noski, aurretik aipatu ditugun beste guztiak. Golemek estreinatu zuten areto txikien egitura eta, era horretan, antolatuko zituen gerora Saidek Principe de Viana eta Carlos III zinemak. Eta aukera berriak ere sortu ziren. Besteak beste, Olite edo Iturrama zinemak, izen bereko karriketant.

Tabernak eta kafetegiak egoitza ba-

rruan jartzeari ere urte haietan ekin zioten, eta diru iturri bikaina bihurtu da haien esanetan.

Azken urteotan, Iturrama kalekoak desagertu egin dira, Gaiarre antzokian ez dago filmik ikusteko aukerarik, eta Golemek Yamaguchiko plazan beste sei areto zabaldu ditu. Duda izpirik gabe, Iruñea hiri zinezalea da, agian beste kultur eskaintza erakargarriagorik ere ez duelako.

Tarteka, emanaldi bereziak ere antolatzen dira: euskarazko lanak, emakumeek zuzenduriko filmak, jatorrizko bertsioan proiektatzen diren produkzioak eta haurrentzat bereziki prestatuturiko zirkloak.

Azkenaldian, etxetik telefonoaren bidez edo interneten bitartez ere sarrerak erosteko aukera badago. Dena den, oraindik ere ez da desagertu krispeten oihartzuna, lo seko gelditzen diren zurrunkak eta solasean hasten diren axolagabeak. Zine mutua aldarrikatu beharko dugu berri. The end.

Pakita Zabalza

TXANTXO LANDETXEKO JABEA

Erroibarko Orondritz herriko Txantxo landetxeak Espainiako Turismo Kalitaterako Institutuak banatzen duen kalitatearen Q kategoria jaso berri du. Sari hori eskuratzen duen lehen etxea da Nafarroan, eta hirugarrena Hego Euskal Herrian. Pakita Zabalza da jabea, eta Q kategoria preziatua jasotzeko ahalegina egin duena.

JOXE LACALLE



«Niretzat baino gehiago, bezeroentzat da garrantzitsua kalitatearen Q kategoria»

J OAN DEN ASTEBURUAN Herriko bestak ospatu ondoren, bisitariak hainbeste estimatzen duten lasaitasuna berreskuratu du Orondritzek. Han, Txantxo landetxearen ondoan duen etxebizitzan, aurkitu genuen Pakita Zabalza, eta bere lanaz mintzatu zitzaigun.

■ Nolakoa izan da kalitatearen Q kategoria lortu arteko bidea?

1999. Urtean, lortzeko bideari ekin genionean, kalitatearen Q ezaugarri horren erranahi zehatza ere ez genekien, egia erran. Informazioa lortu eta lanean hasi ginen. Oso lan gogorra izan da, gauza asko aldatu behar izan ditugulako. Agiri eta paper pila bat bete eta lortu behar izan dugu, gainera. Horretan semea aritu da, eta ni etxean. Aldaketa

anitz egin, eta diru asko gastatu behar izan dugu.

■ Zer aldatu behar izan duzue, zehazki?

Kontua zen etxea erosoago bilakatzea. Lehen solairuan sofak eta hainbat ohe aldatu ditugu, geletako aulkiak ere bai, eta komunak txukundu ditugu. Bigarrenean, berriz, dena. Geletako apainketa aldatu behar izan dugu, giro harmoniatsuagoa lortzeko. Ontzi-garbigailua ere paratu dugu, nahiz eta beharrezkoa ez izan. Azkenean, auditore bat etorri zen etxea ikustera, baldintza guztiak betetzen ote genituen ziurtatzera. Zazpi orduz egon zen etxea goitik behera ikusten eta aztertzen. Lan handia izan da, baina lortu dugu.

■ Eta orain kontent, ezta?

Bai, baina oraindik goiz da errateko egindako lan guztiak zer-nolako emaitzak izanen dituen. Hala ere, ziur naiz egindako ahaleginak merezitako saria jasoko duela. Lortutako Q kategoriak bezeroak erakarriko dituela pentsatzen dut, baina, egia erran behar badut, lortu aurretik ere kontent nengoen etxeak bisitarien artean zuen harrerarekin. Alde egiten dutenean, inkesta egiten diegu, eta gehienak oso joaten dira, pozik jasotako

zerbitzuarekin. Niretzat hori da garrantzitsuena, jendea ongi tratatzea, eta haiek pozik gelditzea. Q kategoria lortu izana niretzat baino gehiago, bezeroentzako da garrantzitsua, haiei etxean aurkituko dutenaren bermea ematen dielako.

■ 1997. urtean zabaldu zenuen Txantxo etxea; zerk bultzatu zintuen landa turismoaren arloan murgiltzera?

Ez naiz gazte, baina ez dut us-

«Ez naiz gazte, baina ez dut uste lanik egin ahal ez izateko bezain heldua naizenik. Beraz, seme-alabek etxetik alde egin zutenean, zerbait egiteko grina piztu, eta abentura honetan sartzea erabaki nuen»

soslaia

Duela 61 urte sortu zen, Orondritzen bertan, Pakita Zabalza. Bost urtez Mexikon bizi izan zen, baina beti izan du gustuko herria, eta, orain, bizileku ez ezik, lantoki ere badu sorteria.

Txantxo etxea moldatu, eta 1997. urtean zabaldu zuen Pakita Zabalzak. Etxea herrian bertan dago, eta bi solairu ditu. Birentzako lau gela daude, bi solairu bakoitzeko, eta komun bat solairu bakoitzean, sukaldeaz eta egongelaz gain.

Txantxo etxera joaten diren bisitariak lasaitasuna dute gustuko, eta inguruko paisaiatz gozatzea. Aste baterako 90.000 pezetaren truke aloka daiteke Pakitaren etxea, eta asteburuko, 38.000 pezetaren truke. Irailaren 9tik aurrera hutsik egonen da, oraingoan.

te lanik egin ahal ez izateko bezain heldua naizenik. Beraz, seme-alabek etxetik alde egin zutenean, zerbait egiteko grina piztu eta abentura honetan sartzea erabaki nuen. Banuen etxe bat, eta moldatzen hasi nintzen, erabat hondatu baino lehen. Jendearekin lan egitea, tratatu zuten hori, beti izan dut gustuko, eta pozik nago.

■ Zer-nolako jendea etortzen da zure etxera? Non goa?

Honat batez ere familiak eta bikoteak etortzen dira, senar-emazteak hurrekin edo bakarrik. Nondik? Leku askotatik: Madriletik, Andaluziatik, baina batez ere Kataluniatik. Badira behin etorri eta berriro itzultzen diren asko, edo lagunak bidaltzen dituztenak. Jendea lasaitasun bila etortzen da, paisaiatz eta hemengo giroaz gozatzen.

■ Landa turismoaren egoera ona da oraindik?

Niretzat, behintzat, bai. Uztailan eta abuztuan beteta egon da etxea, eta zubietan ere hala egoten da. Dena den, jabe batzuk hasi dira erraten landa turismoan nolabaiteko geldiduna gertatzen ari dela, Otsagabian, adibidez. Nik, behintzat, ez dut sumatu. Hasieran nabaritzen nuen honat jendea etortzen zela, Erronkari eta inguruko etxeak betetzen zirenean. Orain, ordea, ez. Jendea zuzenean etortzen da.

■ Gero eta etxe gehiago dago, behintzat.

Bai, orain 450 bat daude Nafarroan. Guztientzat bezeroak badira, baina ez urte osorako, noski. Uztailan eta abuztuan, bai eta zubietan ere, beteta egoten dira. Baina, ekainean, adibidez, nabaritzen da bisitari kopuruak nabarmen egiten duela behera. Oraingoan, dena den, nik behintzat ez dut kezarik.

→ Edurne Elizondo



Nafar Kronika

Gontzal Agote

Sosik gabe

Azken urteotan zutabe hau idaztea hileroko eginbehar arrunta zen: telefono dei bat jaso, egun jakin baterako agindu eta hogeita lau ordu geroago entregatu, azken momentuan batere pertsonala ez den ordenagailuaren aurrean eseri eta buruari astindu batzuk eman eta 1.800 karaktere ingurukoa osatu. Asmo handirik gabe, kontatzeko gutxi, literaturan eskas baina txokotik kanporatua izan gabe (imajinatzen dut arduranaren nagikeriaren ondorioz).

Hemendik aurrera, ordea, gure agintari txit gorenei esker lerro xume hauek idaztean ekintza ausart eta erdi-klandestino bat egiten ari garela sinetsi beharko dut, existitzen ez den egunkarian existitzen ez den gehigarri batean idazteak zirrara berezia sortuko dit. Akabo argia eta takigrafoak, hona hemen berriro katakunbetako kazetaritzaren itzulera.

Aspaldi ez dela, oraindik ere kargu instituzionala duen politikari batek itxi zuten egunkari hura lehegailu kopuru jakin batekin konparatzen zuen. Honako hau bestelako kasua bada ere, eta delitutzat hartzen ez bada, aprobetxatuko dut ahoberoaren metafora eguneko egoerarako.

Antza denez, agintariari min handia egiten diete euskal prentsa bere xumetasunean herrialde honetan egiten ari den lanak eta zabalitzen ari den bideak, egunero eztanda egiten duten ahotsek, zabaltzen diren artikuluek, ikusten diren aurpegiek. Besteak bai, baina hauek euskaraz mintzo dira eta ghe-toan beharko lukete izan.

Txiki-txikiak gara, arkakuso ñañarroak elefante mediatikoen ondoan. Euskal prentsa garaikidea koskortu gabeko haurra da oraindik, eta, gizakiekin gertatzen den bezala, handitzeko maitasuna da gehien behar duena. Jakin badakigu halakorik nondik ez dugun jasoko; hortaz, euskaldunok gure prentsaarekin egunero amodioa egin beharko genuke. Nola lortzen den hori? Norberaren irudimen beroari galdetu.

«Diru gabe baina izarrak gurekin daude, piano baten soinuaz». Itzali gabe, izar berri asko argituko digute zerua.

gure aukerak

MUSIKA

- **Lizarra:** Plazatik Salarat ganbera musika taldeak Fray Diego kultur etxean joko du gaur, 20:30ean.
- **Arizkun:** Danburia, *musica pyrenaica*, taldeak Bozateko Gorriean joko du gaur, 19:30ean.
- **Tutera:** Amaraun jazz taldeak Castel Ruiz kultur etxean joko du gaur, 22:00etan.
- **Burlata:** Buitraker eta Freak XXI (Katalunia) taldeen eta DJ Karmaren kontzertua izanen da gaur, gaueko 12:00etatik aurrera, Larrainen parkean.
- **Arantza:** Txapelpunk, Parasma eta Mauna Loa taldeen kontzertua izanen da bihar, frontoian, 22:00etatik aurrera.
- **Barañain:** Kin Krible abeslariak Lakuaren anfiteatro naturalean kantatuko du asteazkenean, 22:00etan.

BERTSOLARIAK

- **Donamaria:** Bihar, herri bazkarian, Jexux Mari Irazu eta Mikel Mendizabal bertsolariak ariko dira.

DANTZARIAK

- **Zangoza:** Bihar, 20:00etatik aurrera, Rocamador dantza taldearekin batera, Espainiako hiru dantza talde ibiliko dira herriko karriketan barrena: Agrupacion Folklorica Victor Blanco (Palentzia), Grupo de Danzantes de San Asensio (Errioxa) eta Grupo de Paloteau de Boltaña (Hueska).

ANTZERKIA

- **Atarrabia:** Maimur antzerki taldeak *Que vienen los saltimbanquis* izenburuko kale ikuskizuna eskainiko du gaur, 20:00etan, Antso VI.a Jakituraren plazan.
- **Lekunberri:** Kontalariak taldeak *Cuentos y leyendas de Navarra*

antzezlana eskainiko du gaur, 22:00etan, herriko plazan.

ERAKUSKETAK

- **Jaurrieta:** Iñaki eta Mikel Marugan anaien *Tiemposen Jaurrieta* argazki erakusketa eskolan izanen da ikusgai igandea arte, egunero 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.
- **Elizondo:** Ana Marin margolariaren *Nire txokotik oroitzapenak (1953-1997)* erakusketa Arizkunenea kultur etxean irailaren 2a arte, goizez eta arratsaldez dago irekita.

► **Elizondo:** Tomas Sobrinok irailaren 2a arte erakutsiko ditu margolanak, Jaime Urrutia karririkako aretoan, egunero 11:30etik 13:30era eta 18:00etatik 21:00etara.

► **Izaba:** Peio Azketaren margolanak irailaren 2a arte izanen dira museo etnografikoan, asteartetik igandera, 11:30etatik 13:30etara eta 17:00etatik 21:00etara.

► **Erriberri:** Boregan artistaren *Sentimiento y materia* eskultura erakusketa errege jauregian izanen da irailaren 3a arte ikusgai.

LEHIAKETAK

- **Atarrabia:** Jaietako egitarauaren kartel lehiaketan lanak aurkezteko epea hilarekin akituko da. 100.000 pzetako saria dago. Oinarriak Udalaren bulego nagusian eta kultur etxean daude eskuragai.

BESTELAKOAK

- **Zangoza:** Gaur, hilak hamazazpi, erdi aroan girotutako afaria eginen dute Karmengo klausuroan. Erreserbak: 948-870251.

● JOXE LACALLE



Egarria

Eguzkiaren ondotik, beti dator ura; eta ekaitzaren ostean, barealdia. Iruñean, bederen. Asteko egun gehientsuenetan, tenperatura altuak direla eta izerdi patsetan bukatu eta gero, goitik behera blaitu gaituzte abuztuko ekaitzek. Gogor jotzen du euriak horrelakoetan, baina berehala atertzen du. Eta berriz eguzkia, berriz beroa, berriz izerdia, eta berriz egarria. Udaltzainek ere, noski, egarria izaten dute. Irudikoa Gazteluko plazako iturri batetik ari da edaten. Lur azpiko aparkalekuko lanen aferak/uztailan bizi izan zituen ekaitzik gogorrenak. Gerora, barealdia etorri zen. Erreferendumaren aldeko plataformakoak tenperatura bero mantentzen saiatu dira. Lanen aldekoek, ordea, nahikoa dute noizean behin iturritik edatearekin.